



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
2016/03/01

Aldundiak "esperientziak" bilatuko ditu kanpoan, Bizkaiko hondakinen kudeaketea "hobetzeko"

PP taldearen eskariari erantzunez Elena Unzueta Iraunkortasuneko eta Ingurune Naturaleko diputatu andrea Batzar Nagusien aurrera etorri da, Bizkaia Goazen 2030 programaren barruan dagoan “Hondakinen tratamenduari eta ingurumen praktika egokiei buruzko esperientziak trukatzea” deritxan ekimenaren ganeke informazioa emoteko. Unzuetak esan dauenez, “foru konpromisoa” da, hondakinen kudeaketaren arloan Bizkaia daborduko “erreferentea” dan arren. “2016-2019 lau urteko epealdirako 200.000 euroko” aurrekontua dauen proiektuak kanpoan “esperientziak” bilatzeko balioko dau, ikusteko, uriko hondakin solidoen kudeaketaren arloan “ea ba ete dagoan hobetzen lagunduko deuskun neurririk edo sistemarik”.

Hartu emon horreek, arlo horretan Bizkaiak dituan jarduketa eremuagaz eta helburuakaz bat datozan “herrialdeakaz, lurraldeakaz edo herriakaz” izango dira. Aldundiko arduradunek Alemaniara egindako azkenengo bisitaren ostean, Aldundiak aurrera jarraituko dau hartu emon horreekaz, “birtualak edo presentziazkoak”, eta bertan “saileko eta Garbikerreko teknikariek eta aldundiko arduradunek” hartuko dabe parte. Unzuetak ez ditu “kanpoko eragileak” baztertzen, baina, “printzipioz” ez dabe horreen presentziarik aurreikusten.

Diputatu andreak azaldu dauenez, jasangarritasunaren arloan Bizkaia ondo kokatuta dagoan arren, “2030. urteari begiraten deutson ikuspegia landu behar dau”, “gure lurraldeak bere lekua lortu daian ingurumenean nazinoarte mailan”. Topaketa horreen helburua “oraindino eta gehiago ikastea eta gure aurretik doazanei begiratzea da, Bizkaian emoten diran zerbitzuak hobetzeko”, gure abiapuntuak ingurumenaren arloan “erreferente” moduan jarten gaituan arren. “Besteentzat Alemania txikia gara”, esan dau.

Unzuetak baztertu egin ditu “oso aldaketa garrantzitsuak” lurraldeko hondakinen kudeaketan. Jardunbide onen bilaketa hori “erronka” moduan ikusi behar da, Bizkaiak “hobetzeko lekua” daukalako ondino.

Podemosek eta EH Bilduk esperientzia barriak ezagutzea “beti dala positiboa” adierazo dabe, euren eredia “Zabalgarbirena” ez dan arren. Eskaria egin dabe arlo horretako gizarteko mobimenduak eta leku bakotzeko eragileak be entzun daitezcan, Ekologistak Martxan taldeak datorren barikuan, Eskaerretarako eta Herritarrakazko Hartu-emonetarako batzordean, batzarretako taldeen aurrean aurkeztuko dituan proposamenak, adibidez. Talde bi horreek eta PP-k eskaria egin deusie Aldundiari, Batzar Nagusien aurrean esperientzia horreen barri emon daian.

**ADITU BATEK OTSOAREN KUDEAKETEAREN GANEAN EGINGO DAU BERBA
BATZAR NAGUSIETAN**

Batzarretako EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek, Batzar Nagusietara etorteko eta beste Erkidego Autonomo batzuetan otsoaren kudeaketea zelan egiten dan azaltzeko eskatu deusie Recursos Naturales kontsultoretzako Mario Saénz de Buruaga adituari. Espezie hori Karrantzan dagoanez, talde bi horreen eretxiz “derrigorrezkoa” da beste esperientzia batzuk ezagutzea, Bizkairako



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

konponbiderik hoberena aurkitu ahal izateko. Lurraldeak otso-ehizaldiak baimendu ditu orain denpora gitxi otsoaren presentzia murrizteko, Enkarterriko inguru horretan abereei egindako erasoen ostean. Batzordeak aldeko 13 botogaz eta abstentzino bigaz (Podemos Bizkaia) onartu dau Saénz de Buruaga saio batean bertara etortea.

ARRIGORRIAGAN ANIMALIA BASATIAK AUTOEK JOTA HILTEA SAIHESTEKO NEURRIAK

Beste alde batetik, PP taldeak Elena Unzueta Iraunkortasuneko eta Ingurune Naturaleko diputatu andrearen agerraldia eskatu dau, Mendikosoloko parkearen (Arrigorriaga) inguruetan autoek jota hiltzen diran animalia basatien kopurua murrizteko neurriei buruzko informazioa emon daian. Diputatuak, Aldundiak Bizkaian prebentzinoaren eta segurtasunaren arloan egiten dituan jarduketak zehaztu ditu, baina beste ezer baino lehen, PP taldeak agerraldia eskatzeko idazkian aitatzten dauen errepedearen titulartasuna ez dala Aldundiarena argitu dau, Arrigorriagako Udalarena baino.

Unzuetak esan dauenez, Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapeneko saila da Aldundiaren titulartasunekoak diran errepedeetan prebentzinozko neurriak martxan jartzearen arduraduna. Neurri horreen helburua, animalien presentziak eragindako istripuak saihestea da. Neurri horreen artean dagoz fauna basatia igaroten dan lekuetan “uxatzeko produktuak” eta bideko seinale “bereziak”.

Beste ezer baino lehen, sailak azterlana egiten dau, zein moetak fauna dan eta errepedeko zati bakoitzean zein unetan mobiduten dan jakiteko. Hori egiteko, sailak, batzuetan, argi infragorriak erabilten ditu gauetan animalien mobimenduak hautemateko. Datuak aztertu ostean neurri zuzentzaileak apliketan dira. Basurdea edo orkatza moduko espezieak diranean, Aldundiak “otsoaren txiza” erabilten dau. Dana dala, produktu hori lurraldean erabilten diran uxatzeko produktuen “%10” baino ez da. Halanda be, autortu dauenez “ezinezkoa da bermatzea” errepedeetan istripurik gertauko ez danik, Aldundiak “legezko araudia gaingitzen daben” ekintzak planteetan dituan arren.

Arturo Aldecoak (PP) adierazo dauenez, 2015ean animalia basatien “178 harrapaketa” gertau ziran Bizkaiko errepedeetan, eta hori datu “kezkgarria” dala esan dau. Beste lurralde batzuetan martxan jarritako “estrategiak” begiratzeko eskaria egin dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
01/03/2016

La Diputación buscará "experiencias" en el exterior para "mejorar" la gestión de los residuos en Bizkaia

A petición del grupo juntero del PP, la diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta, ha comparecido en las Juntas Generales para explicar la acción “Intercambio de experiencias en tratamientos de residuos y buenas prácticas medioambientales” incluida en la estrategia Bizkaia Goazen 2030. Unzueta ha señalado que este es un “compromiso foral” pese a que Bizkaia ya es “un referente” a nivel de gestión de los residuos. El proyecto, presupuestado en “200.000 euros para el cuatrienio 2016-2019”, servirá para buscar “experiencias” en el exterior “para ver si hay medidas o sistemas que nos hagan mejorar” en materia de gestión de residuos sólidos urbanos.

Estos contactos se llevarán a cabo con “países, regiones o localidades” que coincidan con el marco de actuación y objetivos de Bizkaia en esta materia. Tras la última visita realizada a Alemania por responsables forales, la Diputación proseguirá con estos contactos, bien “virtuales o presenciales”, en los que participarán “técnicos del departamento y de Garbiker, y responsables forales”. Unzueta no descarta “agentes externos”, aunque “a priori no contemplamos su presencia”.

La diputada ha explicado que Bizkaia, aunque está bien posicionada en materia de sostenibilidad, “tiene que trabajar la visión de futuro a 2030” para que “nuestro territorio se posicione a nivel internacional y medioambiental”. El objetivo de estos encuentros es “aprender aún más y fijarnos en los que van por delante para mejorar los servicios que se prestan en Bizkaia”, pese a que el punto de partida nos sitúe como "referente" medioambiental. “Somos la pequeña Alemania para otros”, ha dicho.

Unzueta ha descartado “cambios muy drásticos” en la gestión de las basuras en el territorio. Esta búsqueda de buenas prácticas se debe contemplar como “un reto”, ya que Bizkaia tiene todavía “un margen de mejora”.

Podemos y EH Bildu han señalado que conocer nuevas experiencias “siempre es positivo”, aunque su modelo no sea “el de Zabalgarbi”. Han pedido que se escuche también a los movimientos sociales y a los agentes locales en esta materia, como, por ejemplo, las propuestas que Ekologistak Martxan expondrán a los grupos junteros este próximo viernes en la comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía. Estos dos grupos, junto al PP, han pedido que la Diputación dé cuenta de estas experiencias en las Juntas Generales.

UN EXPERTO HABLARÁ EN JUNTAS DE LA GESTIÓN DEL LOBO

Los grupos junteros PNV y PSE-EE han solicitado a la comisión de Sostenibilidad y Medio Natural la presencia del experto Mario Saénz de Buruaga, de la consultora de Recursos Naturales, para que comparezca en Juntas Generales a explicar la gestión del lobo en otras Comunidades Autónomas. A raíz de la presencia de esta especie en Karrantza, ambas formaciones creían “fundamental” conocer otras prácticas a fin de encontrar la mejor solución



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

para Bizkaia, territorio que ha autorizado batidas recientemente para reducir la presencia del lobo ante los ataques producidos a la cabaña ganadera de esta zona de Encartaciones. La comisión ha aprobado por 13 votos a favor y 2 abstenciones (Podemos Bizkaia) que Saénz de Buruaga asista a una próxima sesión.

MEDIDAS PARA EVITAR ATROPELLOS DE ANIMALES SALVAJES EN ARRIGORRIAGA

Por otro lado, el PP solicitaba la presencia de la diputada de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta, en aras a informar de las medidas puestas en marcha para reducir los atropellos de animales salvajes en los alrededores del parque de Mendikosolo (Arrigorriaga). La diputada ha detallado las actuaciones que realiza la Diputación en materia preventiva y de seguridad en Bizkaia, al aclarar, primeramente, que la carretera mencionada por el PP en su escrito de comparecencia no es de titularidad foral sino del ayuntamiento de Arrigorriaga.

Unzueta ha informado que es el departamento Desarrollo Económico y Territorial el competente para poner en marcha medidas preventivas en las carreteras de titularidad foral que tienen el objetivo de evitar siniestros provocados por la presencia de animales, como es el caso de “repelentes” y señalización viaria “específica” en lugares de paso de especies salvajes.

El departamento realiza primeramente un estudio para ver qué tipo de fauna y en qué momento se mueve en cada tramo de carretera. Para esta labor, el departamento utiliza incluso infrarrojos por las noches para detectar movimientos de animales. Tras analizar los datos, se aplican las medidas correctivas. Para especies como el jabalí o el corzo, la Diputación utiliza “orín de lobo” aunque este producto solo supone el “10%” de los repelentes que se utilizan en el Territorio. Aún así, ha reconocido que es “imposible garantizar” que no se produzcan incidentes en las carreteras, pese a que la Diputación plantea acciones “que van más allá de la normativa legal”.

Arturo Aldecoa (PP) ha apuntado que, en 2015, se produjeron “178 atropellos” de animales salvajes en las carreteras vizcaínas y que este es un dato “preocupante”. Ha pedido que se miren “estrategias” puestas en marcha en otros territorios.